

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gobernu Batzarraren 2019ko maiatzaren 24ko erabakia, Gasteizko udalerria Michelin Hirien Nazioarteko Sarea elkartean sartzeko

Michelin hirien nazioarteko sare bat sortzeko ideia Frantziako Clermont Ferrand hiriko alkate Olivier Bianchik bota zuen, 2014an, helburutzat harturik Michelin enpresa frantsesaren ikerketa- edo ekoizpen- zentro izatea ezaugarri komuna duten mundu osoko berrogeita hamar bat hiriren eta horiekin elkartutako hirien arteko trukeak bultzatu eta esperientziak partekatze lankidetzak-elkarteak sustatu eta koordinatzea.

Politika publikoen berrikuntzarako lankidetzak-motor ahaltsua sortzea lortu nahi da proiektuarekin, lurraldeen nazioartekotzearen eta erakargarritasunaren alorreko gaiak jorratuz, XXI. mendeko kezken ildotik, hala nola Klima Aldaketari buruzko 21 Biltzarrean edo Habitat III. Biltzarrean nabarmendutakoak.

2019ko martxoaren 28an Gasteizko Europa biltzar-jauregian egindako Michelin hirien sarearen (RICM) batzar nagusian, sareko kide diren hirien ordezkariak erabaki hau hartu zuten, besteak beste, aho batez:

— Frantziako elkartze-kontratuari buruzko legearen mende, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat sortzea, Michelin Hirien Nazioarteko Sarea izeneko (aurrerantzean MHNS), zeinek helbidea Clermont Ferrandeko Udalean edukiko baitu, Philippe Marcombes kaleko 10.ean (63003).

— Elkartearen estatutuak onestea.

— Batzorde betearazleko karguen izendapena onestea (8).

— Clermont-Ferrandeko Udalaren eta Gasteizko Udalaren baterako lehendakari-tza onestea, harik eta 2021ean biltzarra hartuko duen hiria izendatu arte, hura izango baita orduan lehendakari-kide.

— Lehendakariordea/diruzaina: Bridgewaterreko Udala (Kanada).

— Lehendakariordea, lankidetzaren arduraduna: Vitoria-Gasteizko Udala.

— Kideak: Andersongo (South Carolina, USA), Valladolideko eta Aranda de Duero (Espainia), BadKreuznacheko (Alemania) eta Santiago de Querétaroko (Mexiko) Udalak.

Frantziako Elkartze-kontratuari buruzko 1901eko uztailaren 1eko Legearen 5. eta 7. artikuluen eta Lege hori gauzatzeko Administrazio Publikoaren araudia onetsi zeneko 1901eko abuztuaren 16ko Dekretuaren 8. artikuluen ildotik, elkartea sortzeko 2019ko martxoaren 28ko erabakia W632012842 zenbakiarekin inskribatu zen Puy-de-Domeko (Frantzia) prefekturako Elkarteen Zerbitzuko Arautze Bulegoan.

RICMen xedea da helburu hauek barne hartzen dituzten era guztietako ekintzei ekitea:

— Hirien arteko elkarrekin eta lankidetzak garatzen laguntzea, trukeak bultzatu eta esperientziak partekatze, baita ekintza publikoaren esparruan jardunbide egokiak zabaltzeko ere.

— Sareko kide diren hirien nazioarteko posizioa eta erakargarritasuna sendotzea.

— Politika berritzaileak hobetu eta partekatzea agintari lokalen eta lurraldeetako indar eragileen artean, lurralde bakoitzaren berezitasunen inguruan eta bi urtean behingo bileretan proposatzen diren gaien gainean.

— Etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izango dieten hiri iraunkor, erresilente eta inklusiboen sorreran parte hartzea.

— Sareko hirien indarguneak eta indar eragileak sustatzea, aktore publiko eta pribatuak mobilizatuz, aktore lokalak ekintza publikoez jabetzera bultzatuz.

— Herritarren eguneroko bizitza hobetzea, lankidetzak eraginkor, iraunkor eta inklusiboaren bitartez, kontuan izanik sareko hirien dibertsitatea.

— Garapen iraunkorrean laguntzea, hiri bakoitzaren testuinguru ekonomiko, sozial eta kulturalak errespetatuz, baita bakoitzaren marko instituzionalak eta oreka sozioekonomiko nagusiak, baita ingurumenaren arlokoak ere.

— Jabetza publiko eta komunalaren kudeaketa hobera bultzatzea, garapen iraunkorraren printzipioekin bat etorriz.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko txostenaren bitartez, kontuan izanik sareko lana —kasu honetan hirien arteko lankidetzak iraunkorraren arloan— guztiz ezinbestekoa dela, nazioarteko lankidetzak ahalbidetzen duenez udalerrien artean, trukeak sustatzeko eta esperientziak partekatzeko, baita ekintza publikoaren arloan jardunbide egokiak zabaltzeko ere, eta, kontuan izanik Gasteizetik betetzen dituela eskatzen diren betebeharrak, proposatzen da Udala elkarte horretako bazkide bihurtzea, 4.000,00 euroko kuota ordaindurik, 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0820.4321.227.11 partidan —Michelin Hirien II. Biltzarra izenekoan— erabilgarri dagoen saldoaren kontura.

Michelin enpresa frantsesaren ikerketa- eta garapen- edo ekoizpen-lantegi bat duten hirien nazioarteko elkartearen parte hartuko du Udalak hartara, beste hainbat udalerrirekin batera. Euskadiko Elkarteak buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legearen mende egongo da hura.

Toki-korporazioek, beren eskubideak baliatzen dituztelarik, eskubidea dute, legearen barruan, beste entitate batzuekin elkartzeko, interes komuneko zereginak burutzeko (Tokiko Autonomiaren Europako Gutunaren 10. artikulua).

Era berean, udalen autonomia bermatzen du Espainiako Konstituzioak 140. artikuluan, eta, zentzu horretan, erabateko nortasun juridikoa dute, baita, administrazio publikoak diren aldetik, tokian tokiko interesak kudeatzeko autonomia ere. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1995 Legearen 25.2 k) artikulua arabera, berriz, sustapen-zereginak bideratzeko eskumena dute, eta, lege beraren 28. artikulua arabera, jarduera osagarriak burutu ditzake beste administrazio edo entitate batzuekin batera.

Eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.25 artikulua xedatutakoaren ildotik, udalerriek eskumena dute tokiko ekonomia- eta gizarte-garapenaren esparruan.

Toki-administrazioak elkarlanean ari daitezke beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin, legeek horretarako xedatzen dituzten kudeaketa motetako edozeinen bidez, toki-erregimenaren inguruan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren —apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua— 70. artikuluan xedatutakoaren ildotik, horien artean baitago elkartearen alorrekoa.

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio horrelako akordioak onesteko eskumena, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127.1 artikulua arabera —Tokiko gobernua eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen idazkuntza—, kudeaketa ekonomikoa bideratzeko zeregina aitortua zaion organoa izaki.

Egiaztatu da badela nahikoa funts egokirik 2019ko udal aurrekontu luzatuko 0820.4321.227.11 partidan.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren gobernu-arloko zinegotzi ordezkariak, komenigarri eta egokitzat jo duelarik Udalak foro horretan parte hartzea, trukeak bultzatu eta esperientzia praktikoak partekatzeke ekintza publikoaren eta garapen iraunkorraren arloan, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Gasteizko Udalak irabazi asmorik gabe entitatea den Michelin Hirien Nazioarteko Sarea elkartearen —erregistroaren-zenbakia: W632012842; egoitza: Clermont Ferrandeko Udala, Philippe Marcombes kalea, 10 - 63003 (Frantzia)— bazkide gisa parte har dezala onestea, trukeak sustatzeko eta esperientziak partekatzeke helburuarekin, baita ekintza publikoaren arloan jardunbide egokiak zabaltzeko ere, hirien garapen iraunkorra lortzeko politika berritzaileen arloko ekintza publikoaren eremuan.

Bigarrena. Orobat onestea lau mila euro (4.000,00 euro) ordaintzea elkarte horri hasierako ekarpen gisa, 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0820.4321.227.11 partidan —Michelin Hirien II. Biltzarra izenekoan— erabilgarri dagoen saldoaren kontura.

Hirugarrena. Michelin Hirien Nazioarteko Sarea elkarteari erabaki honen berri ematea, eta bidenabar eskatzea Gasteizko Udala bazkide gisa onar dezala, elkartearen helburuak partekatzen dituen eta prest dagoenez horiek lortzen laguntzeko, elkartearen estatutuetan xedatutakoaren ildotik.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta Udalaren iragarki-taulan argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 31n

Administrazio-zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI